

Udazkenean, mahatsa biltzen da.

Zuhaitz askori hosto guztiak
erortzen zaizkie udazkenean,
adibidez, pikondoari,
almendrondoari, makalari...

Beste zuhaitz batzuei, berriz, oso
hosto gutxi erortzen zaizkie,
adibidez, palmondoari,
eukaliptoari, pinuari...

Udazkenean, gaztainondoak
fruituak ematen ditu: gaztainak.
Gero, biluzik geratzen da: hostoak
galtzen ditu.


Agur, gaztainondo!

Datorren urtera arte!

Udazkenean, hotz egiten hasten da eta, horregatik, trikuak gordelekuan sartzen
dira, hotzetik babesteko. Hantxe geratuko dira, lo, eguraldi ona etorri arte.

Udazkenean, ahateek, zikoinek, enarek... alde egiten dute lur epelagoetara.
Milaka eta milaka kilometro egiten dituzte hegan!

Udaberria iritsitakoan berriro itzuliko dira udazkenean utzitako lekuetara.



1. Inguratu irakurgaiak aipatutako udazkeneko bi fruituak:

gaztaina / tomatea / mahatsa / sagarra

2. Idatzi BAI ala EZ:

Udazkenean zuhaitz guztiei zaizkie hostoak erortzen, baina
batzuei

3. Egin gurutzea udazkenean hosto guztiak galtzen dituzten zuhaitzen ondoan.


- ☐ Gaztainondoa
- ☐ Palmondoa.
- ☐ Pikondoa
- ☐ Almendrondoa.
- ☐ Eukalipto.
- ☐ Pinua.



4. Idatzi *esna* edo *lo*.

Udazkenean, trikuak _____ geratzen dira, eguraldi ona egiten hasi arte.

5. Idatzi udazkenean urrunera joaten diren hiru animaliaren izenak.



Ebaluazioa

- Zuzendu zeure ariketak.
- Margotu berdez erantzun zuzen bakoitzari dagokion laukia.

1

2

3

4

5